

LEMOAKO UDALBATZA. 2020KO EKAINAREN 11KO OSOKO BILKURA BEREZIA
6/2020 AKTA

Tokia	Eguna	Hasiera ordua	Amaiera ordua
Udalbatzaren aretoa (telematikoa)	2020ko ekainaren 11n	19:00 (Lehenengo deialdia)	19:17
Bertaratuak			
Asistentes			
Idazkaria Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa		<p style="text-align: center;">Alkate-Udalburua Dña. Saioa Elejabarrieta Amorrortu and. (EH Bildu)</p> <p style="text-align: center;">Zinegotziak D. Eukeni Bikarregi Uriarte jn. (EH Bildu) Dña. Marian Garai Salutregi and. (EH Bildu) D. Aritz Undurraga Almaraz jn. (EH Bildu) D. Ioritz Fernández García jn. (EH Bildu) D. Jon Andoni Pérez Bilbao jn. (EH Bildu) D. Iñigo Zuloaga López de Letona jn. (EAJ-PNV) Dña. Esther Iturrioz Rementeria and. (EAJ-PNV) D. Urko Garamendi Meabe jn. (EAJ-PNV) D. Joseba Iñaki Bärrenetxea Iriondo jn. (EAJ-PNV) Dña Zuriñe Etxebarria Zuluaga and. (EAJ-PNV)</p>	

1

Osoko bilkura berezia
Pleno extraordinario.
2020ko ekainaren 11a

Idazkariak beharrezko bertaratze-quoruma dagoela egiaztatu eta gero, Lehendakaritzak adierazi du Udalbatzaren osoko bilkura irekia dela, eta osoko bilkura berezi honetan aztergai bakarria jorratuko dela. Bilkurari hasiera eman zaio, eta gai-zerrendako gai bakarria aztertu da:

1. Lemoako pertsona eta familientzako dirulaguntzen oinarriak onartzea. COVID-19.

COVID-19ak osasun-larrialdiarengatik Alkateak deitu du osoko bilkura berezi hau eta hitza hartu du adierazteko aurreko osoko bilkura batean kreditu aldaketa egin zela Lemoako Udalaren aurrekontuan. Orain da garaia aurreikusitako 200.000 euro horiek herritarrei eta familiei biderateko ERTEan eta langabezia gelditu diren herritarrontzako. Lemoako Udalaren laguntzak zenbateko osagarria izango dira herritarrek beste erakundeengandik kobratzen dituzten dirulaguntzekin, 1.100 eurora arte. Zenbateko osagarri hori ERTE edo langabezia egoera arintzeko baliagarria izango da alarma-egoerak irauten duen artean. Lemoako herritarrek eskabidea aurkeztu ahal izango dute deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Esther Iturrioz zinegotziak hitza hartu du adierazteko hainbat motatako zalantzak dituztela. Eskumen aldetik ea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16. artikulua betetzen den ala ez, eskumenen arloko bikoizketari eta finantza iraunkortasunari dagokionez. Hori dela eta, PNV-EAJ taldeak beharrezkoa den txostena eskatzen du, eta horretaz gain informazio falta salatu nahi du. Osaun-krisia aurretik langabeziaren azterketa sakona egin behar da eta interesgarria litzateke langabeziko egoeran dagoen jendea ikertzea lan merkatura zelan itzuli daitekeen aztertzeko. Euren adierazpena idatzita pasatuko dute eta nahi dute aktarekin batera jasotzea, idazkari kontu-hartzailearen lege-txostena eskatzea ez ezik. [PNV-EAJren ekarpena akta honetako eranskin moduan gaineratzen da].

Puntu honen gaineko botazioa egin da, honako emaitza honegaz:

Lemoako pertsona eta familientzako dirulaguntzen oinarriak onestearen alde: Saioa Elejabarrieta Amorrortu, Eukeni Bikarregi Uriarte, Marian Garai Salutregi, Aritz Undurraga Almaraz, Ioritz Fernández García Jon Andoni Pérez Bilbao (6 boto).

Abstentzioak: Inor ere ez.

Lemoako pertsona eta familientzako dirulaguntzen oinarriak onartzearen aurkako botoak: Iñigo Zuloaga López de Letona, Esther Iturrioz Rementeria, Urko Garamendi Meabe, Joseba Iñaki Barrenetxea Iriondo, Zuriñe Etxebarria Zuluaga (5 boto).

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman du 2020ko ekainaren 11ko 19:17an, eta horren guztiaren fede ematen dut.

Ontzat emana

Saioa Elejabarrieta Amorrortu
Lemoako Udaleko alkatea



LEMOA

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Lemoako idazkaria



